

Festibalean



Iban Zaldúa & MICE

Donostia, Literaktum,
2022ko azaroaren 16an

1871



John A. L. & Co.

1022 Broadway, New York

Hiri-autobusean bikain doaz, aire egokitua duelako, baina argi dago beroa egingo duela arratsalde honetan. Paulek berriro begiratu du poltsan, badaezpada, ea eguzkitik babesteko krema daraman, eta hor ikusten du, Garnier Delial Niños 50+. Lehen ere begiratu du, etxetik atera direnean, baina ezin du saihestu: etxeko gasa itzali duela konprobatzera itzultzen diren horietakoa da Paul, eta hori egin ondoren, berriz itzuli behar dutenetakoa atzera, ea atea giltzaz itxi duen ikustera; beti topatzen ditu gauza biak ondo, baina, hala ere, egin egiten du aldiro.

Zenbat denbora aurreztuko lukeen, halakoetan, pentsamenduaren indar soilaz, edo Star Trekeko Enterprise ontziko tele-garraio makina bezalako batekin, etxera istantean itzuli ahal izango balitz, ia ziur egin duen hori konprobatzera.

–Idea ona da debaldeko autobusena, ezta? –esan dio halako batean parean daukan Aiorari.

–Joan den urteko festibalera ere honela joan zinen? Ez dut gogoan kontatu zenidanik...

–Bai, oso eroso da. Eta bueltan ere, gauean, oso ondo funtzionatzen du, autobus mordoa ipintzen dute, apenas eratzen da errenkadarik; hala izan zen joan den urtean, behintzat, eta baita atzo ere. Ez BBK Liven bezala: hor sekulako buxadurak egoten dira...

–Tira, normala ere bada. Imagina ezazu guztiok autoz etorriko bagina, edo urbano normaletan. Kaosa izango litzateke.

–Eta, gainera, horrela ez dago edateko trabarik...

–Gaur, badakizu, ezin gara pasatu...

Horixe esan dio Aiorak Pauli, ondoko eserlekuan daukan Telmoganantz keinu bat eginez; umea autobuseko leihotik ari da begira, paisaia murgilduta.

–Primeran ibiliko gara festibalean, e, txapeldun? –algaraka Paulek, lau urteko semearengana eskua luzatu eta ile horail sarria harrotzen dion bitartean.

–Izeba Izaskun han egongo da? –galdetu du Telmok, burua gurasoengana bueltatuta.

–Bai, laztana, gero elkartuko gara berarekin.

–Agian hantxe egongo da jada.

–Izaskun? Duda egiten dut.

–Lehenengo taldeak ez al dira interesgarriak ala?

–Izaskunentzat ez dut uste. Bera Cat Powerrengatik doa batez ere, zu bezala.

–E, banoala beste talde batzuk ere ikustera...

–Bai? Zeintzuk?

–Belako, adibidez.

–Belako?

–Kanta pare bat aditu ditut, eta gustatzen zaizkit...

–Dena den, gu berandu helduko gara. Ez dut batere gustuko lehenengo taldeak galtzea...

–Zeintzuk dira hasierakoak...?

Paulek sakelako telefonoa atera eta kontsultatu du.

–Charlie and The Colours eta Músculo; ordu berean jotzen dute, bi eszenatoki ezberdinetan. Baina ozta-ozta iritsiko gara bigarren txandara, Siesta!-ra; tira, Perlak eta Siesta! horiek ere batera jotzen dute, baina niri Siesta! gehiago interesatzen zait.

–Bueno, horiek ez ditu inork ezagutzen...

–Berdin dio, batzuetan festibaletako gauzarik onena talde berrien aurkikuntzak dira. Gainera, badakit Perlak zein diren: aurrekoan Andoaingo gaztetxean ikusi nituen. Eta besteen bideoak Youtuben ikusten egon naiz egunotan.

–Ez dut uste nire erruagatik atzeratu garenik...

–Oraindik ez dakit zergatik ezin izan dugun umea zure gurasoekin utzi...

Paul Aiorarengana hurbildu da hori ahopeka esateko; Telmok leihotik begira jarraitzen du.

–Joder, Paul, hitz egin dugu honetaz. Nire gurasoez nahikoa abusatzen dugu egunero.

–Gau bakar bat zen...

–Zureak, ordea, ez daude sekula halakoetarako prest.

–Ondo dakizu Benidormen daudela oraindik, eta ez direla itzuliko datorren...

–Bai, bai. Hala ere.

–Gainera, badakizu gure aitari, umeak...

–Ikusten?

–Berdin dio.

–Zeu ere gera zintezkeen etxean, aurtengoagatik.

–Bai zera! Urtero etorri naiz: tradizio bat da honezkero. Gainera, agian Badok webgunekoek kronika eskatuko didate, eta...

–Jakina, jakina...

Autobusa iritsi da sarrerara; jendea mantso hasi da jaisten. Paulek eskua eman dio mutikoari, eta, presa askorik gabe, metalezko segurtasun hesiek marraztutako sigi-sagan zehar –“Begira, Paul, labirinto bat!”–, antolakuntzako leihatiletara hurbildu dira, Aioraren tiketa aurkeztera eta eskumuturrekoagatik aldatzera –Paulek badauka berea, aurreko egunean ere joan zelako festibalera, lankide batzuekin baina– eta Telmorentzat kasko isolatzaileak eskuratzera. Eszenatoki urrunetatik lehen kontzertuen zarata bereizezina iristen da haiengana.

–Zer da txiparen kontu hau? –galdetu dio Aiorak Pauli, eskumuturreko metalezko xafla txikia seinalatuz.

–Edariak eta janaria ordaintzeko erabili behar den matraka bat. Antolakuntzak dituen postuetan kargatu behar da, eta horrela tabernetan ez da eskudirurik erabili behar.

–Uf. Hau alferkeria.

–Nik oraindik badauzkat sos batzuk nirean, atzokoak. Konponduko gara, ez arduratu.

–Sartu baino lehenago eguzkitako krema jarri beharko genioke Telmori. Zuk daukazu, ezta?

–Gehiago? Etxetik atera aurretik ipini diogu eta...

–Nik nahiago dut ziurtatzen badugu. Unetxo bat besterik ez da.

–Berandu helduko gara...

Makurtu, umea kremaz ondo lerdatu, eta ezker besoan rotulkiz idatzi dioten telefono zenbakia ondo ikusten dela konprobatu ondoren –“Badakizu zer egin behar duzun amatxo edo aitatxo ikusten ez badituzu, ezta?”–, ateetara iritsi dira, eta zaindarien motxilak-eta irekitzeko eskatu diete.

–Hau ezin duzue barrura sartu –abisatu die seguratetako batek, urez beteriko elefante formako botilatxo bat eta sagar bat erakutsiz.

–Mesedez! Umearentzat da eta –erantzun du Aiorak, haserre. Zaindaria pareko bere kidearengana jiratu, eta besteak besaburuak altxatu ditu; azkenean, guztia pasatzen utzi die, keinu lehor batekin.

–Ze kabroiak. Festibalena, janarekin eta edatekoarekin, negozio zikina da.

–Bai horixe.

Telmo bere kaskoekin doa, poz-pozik, noizean behin kenduz eta ipiniz, horiek jantzita zein gutxi entzuten duen probatzeko. Gurasoek azaldu diote hobe dela denbora guztian eramatea, “hor barruan zarata handia dagoelako”. Siesta! jotzen ari den eszenatoki txikira hurbildu dira; ez dago jende asko bertan, baina ez dute kuadrillako inor ikusi. Telmo arranpalo geratu da han goian, horren altu, frenetikoki mugitzen ari diren musikariei begira.

–Agian beste eszenatokian egongo dira...–esan dio, oihuka, Aiorak Pauli—. Uste dut hara joango naizela...

–Begiratu duzu ea Whatsappean zer dioten?

Aiorak sakelakoa atera du.

–Bai. Ematen du hantxe daudela, agian ez guztiak...

–Baina nik kontzertu hau entzun nahi nuke... Perlak duela gutxi ikusi nituen eta...

–Ba nik nahiago Perlak, zarata hau ez zait sobera gustatzen ari. Euskaldunak dira, ezta?

–Umea zeurekin eramango duzu? –itxaropenaz, Paulek.

–Umearekin geratuko zara? –galdera batekin erantzun dio, eta ahalik eta tonu ironikoena eranstean saiatu da aldi berean.

–Bueno, lasai, ez jarri horrela, emakumea.

Pauli iruditzen zaio, batzuetan botatzen dizkion puntadengatik, neska-lagunak uste duela umea ez duela nahikoa zaintzen. Eta, bere buruari errepikatzen dion bezala, ez da inolaz ere horrela. Ezingo luke jasan ezer jazoko balitzai. Nahiago luke haren lekuan egon eta beharrezkoa litzatekeen guztia sufritu, Telmori ezer txarrik gertatzea baino.

Azkenean hirurok elkarrekin igo dituzte beste eszenatokira daramaten eskailerak, Siestal-ren kontzertua atzean utzirik. Jende gehiago dago bertan, baina ez dute arazorik izan lagunak topatzeko, oholtzaren ezkerrean. Muxuak, besarkadak, zapladak. Zenbat hazi den Telmo. Umea asko poztu da Izaskun ikusteaz; bere “gezurretako” izeba, azkeneko lerroetara eraman, eta gauzak galdetzen hasi zaio umeari, ohi duen moduan; Paul eta Aiora aurrean geratu dira, pasa dieten katxiari lehenengo tragoak lapurtzen. Lagunak, kankak entzun bitartean, elkarrekin hitz egiten dute.

–Oso The Cure, ezta? –ebatzi du Aiorak.

–Nik Joy Division aipatuko niken lehenago –Patxik, kuadrillako beste batek.

–Bigarren gitarrista ezagutuko duk –esku hartu du Paulek—: Miren Narbaiza duk, Napoka Iriakoa. Uste diat duela gutxi batu zaiela.

–Horra gure askojakina indar betean! Woah, woah, woah! –hori esatearekin batera, Txarlyk estu heldu du sorbaldatik Paul, eta astindu batzuk eman dizkio—. Eta hi? Zer ari haiz horrela begiratzen? –zuzendu zaio, tupustean Paul askatuta, publiko artean burua etengabe jiratzen ari zen tipa bati.

Emakumea hatza eraman du ahora, eta isiltasuna eskatu die kuadrillakoei. Txarly harengana jiratu eta zera bota dio:

–Zer? Zer esan nahi dun horrekin?

–Ez zaretela isiltzen, oso ozen ari zaretela... Gu kontzertua entzutera etorri gara.

–Hara bestea. Hik bezala ordaindu dinagu sarrera. Beraz, nahi adina hitz egiteko eskubidea zeukanagu.

–Nazkatu arte, potroetatik ateratzen bazaigu! –berriro ere Txarlyk.

–Nazkante halakoa...

Emakumea, purrustaka, aurreneko lerroetara erretiratu da.

–Igual pixka bat pasatu zarete... –aurpegiratu die Nereak, kuadrillako beste batek.

Baina taldetxoa antzera aritu da kontzertu osoan, katxiak hornitzeko barrarako txandakako bidaiak alde batera utzita.

Horietako batean, barran zeudela, edalontzi berrerabilgarriak betetzen, bota dio Txarlyk Pauli:

–Zuek daukazue potroak! Ume gaixoa festibalera ekartzea ere...

–Tira, gero eta jende gehiagok egiten dik. Primavera Sounden...

–Paul...

–Kaskoekin ez zegok arazorik: probatu ditiat eta ez duk dezibelio erdia ere sartzen.

–Ezin zuan aitona-amonen etxean geratu, ala?

–Gaurkoan ez...

–Ba Aiorak arduratzea zeukaen, orduan.

–E! Berak ere badaukala festibalera etortzeko eskubidea... Gainera, Cat Powerren zalea duk, badakik; ezin nioan hori egin.

–Orduan...

–Orduan, zer.

–Batzuetan sakrifizioak egin behar direla.

–Klaro, hik umerik ez daukaenez...

–Ezta gogorik ere...

–Ba eutsi mihi horri zuloan.

–Ezingo zarete oso berandura arte geratu, edozein modutan ere.

–Telmok kemen handia zeukak. Eta, gainera, horixe duk festibal honen abantaila: jolas-parkea irekita diagu. Mendi errusiar eta guzti!

–Jolas parkea, eta “izeba” Izaskun. A ze muturra zuena.

–Tira, tira... E, itxaron, ordaindu dut jada? Niri tokatzen zitzaidan, ezta? –eta barra atzeko zerbitzariarengana itzuli da.

–Hi beti berdin, Paul, gauzak bi aldiz egin behar ho- rrekin... Bai, ordaindu duk jada: nire begitxoekin ikusi diat. Ale, goazen.

Lagunartera itzuli direnerako Perlaken kontzertua amaituta dago kasik.

–Zer daukagu orain?

–Neuman, eszenatoki nagusian.

–Ideiarik ez zeintzuk diren.

–Joango gara begiratu bat ematea?

–Ni Telmorekin geratuko naiz, ondo baderitzozue –esan du Paulek. Eta Izaskunen eskutik datorren mutikoari ukabilkada leun bat eman dio bularraldean-. Zer? Joango gara mendi errusiarrera? Edo benetako labirinto batera?

Umeak irribarre egin du, eta baiezkoa buruarekin.

–Ez pentsa, Paul, bere ardura hartuko dudarik Cat Powerren kontzertu bitartean, e...

Izaskunek ere uko egin dio umeaz arduratzeari, bera ere Cat Powerren *fana* dela argudiatuta.

–Ez nuen horregatik proposatzen... –erantzun du, pixka bat zapuztuta, Paulek.

–Eraman sagarra, gosea duenerako.

Eta Aiorak, bere poltsatik aterata, fruta eta ur botilatxoa pasatu dizkio.

Atrakzioen artean galdu dira Paul eta Telmo, eszenatoki nagusiko oihartzun apalak entzuten dituztela. Ohi bezala, gizonari zaila suertatu zaio umearekin bakarka egotea: mutiko isila da, lotsatia, aktiboa baina neurrian, onbera. Une batetik aurrera aitak ez daki zer esan, zer kontatu, eta Telmok ez dio sobera laguntzen, baina ezta bereziki zail jartzen ere, hain da aiurri onekoa. Gogoia dauka pixka bat haz dadin, berarekin Marveleko super-heroien komikiak eta zientzia-fikziozko filmak konpartitu ahal izateko. Elkarriketa “interesgarriak” izateko, behingoz. Pixka bat maldan gora egiten ari zaio fase hau. Eta Aiorak bigarrena ekarri nahi du, berandutzen ari zaiela esan dio behin baino gehiagotan azken aldion. Berak ez du halakorik uste. “Kuadrillako lehenak izan gara eta!”. Eta bakarrik, oraingoz.

Azukrezko kotoia erosi dio, baina ez dirudi Telmori gehiegi gustatu zaionik, eta Paulek jan beharko du; mutikoak sagarra nahiago. Ez zaio batere inporta: ohartu da aspaldi ez zuela kotoia dastatzen –nerabezarotik, akaso?– eta bazuela gogoia. Ohartzen da, finean, ez diola Telmori erosi, bere buruari baino. Eta mendi errusiarrera ere igoko dira berak horretarako gogoia itzela duelako, ez Telmok halako gauzekiko zaletasuna agertu duelako sekula.

–Zer, prest mendi errusiarreko zure aurreneko bidaiarako, Telmo? Ikusiko duzu zer ondo pasatuko dugun.

Tamalez, umea gutxieneko adinera ez dela iristen azaldu dio arduradunak, eta igo gabe geratu dira. Ibai Misteriotsura joan dira orduan, tunelpeko ubide bihurtu eta estu batetik doazen txalupetara. Horretara ere hamarkadak dira ez dela igo; gurasoekin etorriko zen azkeneko aldiz, umetan. Gogoratzen zuena baino laburragoa eta gatzgabeagoa iruditzen zaio ibilbidea; atrakzioa utzia dago, zikin samarra. Telmori asko gustatu zaio, ordea.

–Zelako krokodiloa, ezta?

Telmok baietz dio buruarekin, irribarre zabala ahoan. Aitak errealistago eta beldurgarriago gogoratzen zuen harrizko krokodilo hura. Ondo pentsatuta, eskaiozkoa izan behar duela ebatzi du.

–Orain labirintora eramango zaitut, Telmo. Presta zaitez!

Hara bideratzen diren bitartean, bi mezu jaso ditu Whatsappean: bat Aiorarena, umea zer moduz dagoen

–“Primeran!”, erantzun dio, emotikono irribarretsu batzuekin batera–, eta bestea Nerearena, ea non dagoen

–“Labirintorako bidean”–, erantzun dio berehala.

Labirinto aurreko terrazan juntatu dira hirurak. Nereak berriro agurtu du Telmo, haurtzaroan berez duena baino interes handiagoa itxuratuz.

–Zer, gurekin sartuko zara? –galdetu dio Paulek, atzean daukaten atrakzioa seinalatuz.

–Bai, zergatik ez. Konpainia pixka bat beharko zenuela pentsatu dut. Eta hau ere ekarri nahi nizun.

Katxi erdi betea pasatu dio Pauli.

–Eskertuta dago.

Paulek trago bat eman dio garagardo epelari. Balkoian bermatu dira, eta Telmori sakelakoa utzi dio, jolas batekin aritzeko; harrigarria da ze ondo moldatzen den teknologiarekin, duen adinerako. Mutikoa lurrean eseri da, haien ondoan, txintxo.

Larruzko jakaren goiko ezkerreko poltsiko txikian hatzekin kolpetxo batzuk emanez, honako hau gehitu du neskak:

–Badaukat beste zerbait ere, behar izanez gero.

–Speeda ala farla? –ahopean Paulek.

–Galdetzea ere. Gure adinarekin...

–Nori agindu diozue enbaxada? Patxiri, seguru.

–Bai, beti kexatzen da, bizkarroi batzuk garela.

–Besteok ez ditugu saltzaileak ezagutzen, ordea.

–Saiatzen ez garelako. Hori dio behintzat Patxik, kar kar kar.

–Gizajoa, kar kar kar. Agian gero, bale? Eske umearekin.... Non zeundeten?

–Hor behean bertan, Izaroren kontzertuan. Begira, hantxe daude, ikusten dituzu?

Kuadrillakoak ohartu goitik saludatu dituztela, eta agurra itzuli diete.

–Ez du itxura txarrik, Izaro horrenak...

–Nah, niri ez dit gauza handiegirik komunikatzen...

–Ingelesez kantatzen duelako?

–Zer esan nahi duzu? A, egon zen polemikatxoagatik diozu, ez zituelako kanta guztiak euskaraz abesten... Ez, ez da horregatik. Bigunegia iruditzen zait bere estiloa, besterik gabe.

–Seguru? Ba, Twitterren zuk ere ederrak bota zenituen haren kontra, asunto hura atera zenean.

–Noiztik daukazu zuk ba Twitterra?

–Ez daukat.

–Eta orduan zer egiten duzu nire kontuan sartzen, Paul? Kuxkuxero bat zara!

–Voyeur xume bat, besterik ez.

–Tío!

–Ez naiz zurean bakarrik sartzen, e. Badakizu, espektakuluaren gizarteak horretara bultzatzen gaitu –esan du Paulek, samin esajeratua antzeztuz–. Baina ez dezagun gaia desbideratu. Benetan iruditzen zaizu gaizki Izarok ingelesez kantatzea? Eta Belakoz gauza bera pentsatuko duzu, noski.

–Ba bai. Ez diot zentzurik ikusten.

–Zu, ordea, kuadrillako guztiak bezala, ingelesez kantatzen duen batengatik etorri zara festibalera, Cat Powerrengatik. Ez da pixka bat kontraesankorra?

–Zerikusirik ez. Noski gustatzen zaidala Cat Power. Baina ez dut ulertzen zergatik ari diren ingelesez euskara eskura daukatenean: beren hizkuntza propioa, hobekien menderatzen dutena. Izan ere, penagarri egiten dute ingelesez.

–Niri ez zait iruditzen Izarok horren txarto egiten duenik...

–Bah...

Karelean bermatuta, behera begira jarraitzen dute, kontzertu aldera; musika iristen zaie, baina ez oso garden. Kuadrillakoak han dira oraindik, multzotxo batean. Nereak berriro pasatu dio katxia. Garagardoa nazkagarri dago, baina Paulek beste trago bat eman dio. Auzoetako festetako lehenengo katxi haietaz oroitu da. Esku artean duena bezain higuinagarriak. Hamabost edo hamasei urte zituztenean. Nerea bere lehenengo neska-laguna zenean. Eta bera Nerearen lehenengo mutil-laguna. Orain ez luke semerik izango, pentsatzen du, Nerearekin jarraitu izan balu. Nerea ez da batere umezalea, hori ematen du aditzera, behintzat. Edonola ere, aro horietako harremanek ez dute sekula irauten. Izan ere, nahiz eta bizitza osoan kuadrillatik ezagutu, Nerea bezala, Aiorarekin ez zen irteten hasi karrera amaitu eta dezentera arte. Hori bai, ondoren nahiko berehala etorri zen Telmo.

–Eta zer...? Nobiorik edo, azkenaldi honetan?

–Zu ere bai, Paul?

–Ni ere zer?

–Zergatik eman behar duzue denek alamera kontu berarekin? Bakarrik ezin da ondo bizi, ala? Emakume bat, bakarrik? Hain da sinestezina?

–Galdera bat besterik ez zen; ez dut uste hainbesterako denik.

–Kokoteraino nago halako galderez. Joder.

–Barkatu, Nere...

–Ez “Nere” ez ostia, Paul. Batzuetan iruditzen zait ez garela institututik atera, hain gara denok infantilak. Begira festibal honi. Jolas parke batean. Metafora bat bailitzan. Hogeita hamakoxka urteko andre-gizonak jo eta su autotxokeetan edo punteria egiten ferriako karabinekin. Gizarte gero eta infantilizatuago batean bizi gara. Haurtzaindegiko kapitalismo batean.

–Bota du bere txapa unibertsitateko irakasleak...

–Ez da txantxa bat, Paul. Badaramat denbora bat horretan pentsatzen. *Paper* baterako, badakizu, kar kar. Aurrekoan, zuk ezin izan zenuen ordukoan etorri, Azkenara joan nintzen kuadrillakoein, eta inpresio bera hartu nuen: nagusientzako zirku batera joan ginela. Ondo pentsatuta, hark ere jolas parke baten itxura guztia zeukan. Agian honek baino gehiago, distiratsuago zegoelako; ez dakit ulertzen didazun. Tira, hain dago zaharkituta eta hondatuta parke puta hau, ez baitakit ze puntutaraino betetzen dituen ondo sistemaren xedeak...

–Bide batez, agian unea da labirintora bisitaldi bat egiteko, ezta? –Paulek, ahotsa goratuz-. Zer iruditzen, Telmo?

Baina Telmo ez dago azkeneko aldiz begiratu duenean zegoen lekuan, haiengandik metro gutxira, terrazako karelaren kontra eserita, sakelakoa eskuetan. Egon beharko zukeen lekuan kasko isolatzaile gorriak daude, eta ondoan, laster ohartuko diren bezala, Paulen sakelakoa.

–Telmo! Telmo! Non zaude?

–Telmo!

–Joder.

Paulek arnasarik gabe geratzen dela sentitu du une batez. Edozer gauza gertatu ahal izan zaio. Edonork eraman ahal izan du.

Nereak inguruan dabilen jendea gelditzen du:

–Ikusi duzue mutiko bat? Lau urtekoa, ilehoria. Tamaina honetakoa. Kamiseta berde bat zeraman. Berdea zen, ezta, Paul?

–Bai.

Jendeak ez daki ezer, ez du ezer ikusi.

–Telmo!

–Agian labirintora joan da bera bakarrik.

–Lehen erakutsi diot non zegoen...

–Begira dezagun.

Ateraino joan dira, leihatilako tiket-saltzaileari galdetu diote. Halako mutikorik ez duela ikusi erantzun die.

Zerbait bururatu zaio Pauli

–Txikia da. Akaso zu ohartu gabe pasatu da.

Zaindariak ez du uste. Festibal egunetan oso jende gutxi sartzen dela labirintoan. Mendi errusiarrean, ordea, tope dabiltzala.

Saltzailea derrepentean isildu da, Paulen begiradak jeltuta. Eta esan die begiratu nahi badute, sartzeko, ez daukala batere arazorik...

–Deituko diogu Aiorari...? Agian beragana joan da...

–Oraindik ez! Gainera, begira WhatsAppa: Izaroren kontzertua amaitu dela eta badoazela eszenatoki nagusira, Cat Powerrenera. Umea haiekin egongo balitz esango zidan.

Labirintoan sartu dira. Bizkor zeharkatu dute, Telmori dei eginez etengabe; arduradunak esan bezala, ez dago inor barruan. Nimiñoa iruditzen zaie, beldurra eragin behar zuten panpinak saretuta eta hautsez beteta, eta berehala ebazten dute ibilbidea, txikitatik grabatuta eraman balute bezala: bideitsuak saihestu, eta lehenengoan asmatu dute zein den biribilgune handira ematen duen atea. Berehala iritsi dira amaierara, txirristen gelara.

Han dago, haiei itxaroten, atrakzioaren arduraduna, kezka aurpegiarekin. Walkie-talkie bat erakutsi die, ea deituko dien festibaleko segurtasunekoei. Ziur dagoela berehala aurkituko dutela. Agian zaintzapean daukatela honezkero...

–Onena hori izango da, Paul.

Baietz erantzun die Paulek, trantze batetik ateratzeko zailtasunak izango balitu bezala.

–Eta nik Aiorari deituko nioke, baita ere. Nahiago duzu nik egitea? Telmo aurkituko dugu, lasai egon, Paul.

Kanpora irten dira hirurak. Ez du oraindik ilundu: eguzkiaren sarrera, mendi gain hartatik, ederra izango dela ematen du. Eszenatoki nagusitik Cat Powerren kontzertuaren doinua iristen zaie, oso ahul. Bietako inork, ez Paulek ezta Nereak ere, ez dute ezagutu zein kanta ari den jotzen.

Telmoren kasko isolatzaileak eskuan daramatzala ohartu da Paul. Nereari eman dizkio.

Nahiago nuke Telmoren lekuan egon, pentsatu du, eta beharrezkoa litzatekeen guztia sufritu, hari ezertxo ere gertatzea baino. Pentsamenduaren indar soilaz nahiko luke trukatu eta hura dagoen lekuan agertu, eta Telmo, ordea, hemen, Nerearen ondoan. Star Trekeko tele-garraioa erabili balu bezala.

Eta halaxe gertatu da, une batez behintzat. Hasieran ez du jakin non dagoen, iluntasunagatik. Gero mugimendua nabaritu du, kolpeak, jauzi moduko batzuk. Etzanda dago material artifizial batez –plastikoz?– estalitako gainazal zimurtsu baten gainean. Espazioa estua da oso: hankak tolestuta dauzka eta bere eskuek berehala jotzen dute, burutik zentimetro batzuetara, metalezko estalki baten kontra. Distira gorri batek argitzen du, noizean behin, espazioa, oso ahulki bada ere. Nahikoa film ikusi du ohartzeko auto baten maletategian dagoela giltzapetuta. Esango luke maldan behera doala momentu honetan, mugimenduak kutxaren hormetako baterantz bultzatzen duelako, distiraren iturburutik –hots, autoaren atzeko argiak kokatuta bide dauden aldetik– urrunduz.

Poltsikoa haztatu du sakelakoa gainean daraman ikusteko. Baina ez dago.

Izerditan dagoela sentitu du. Non ote daude? Kanpotik heltzen zaizkion zarata ilunek ez diote ezer iradokitzen. Estalkia bultzatzen du eskuekin, baina ez du ezer lortzen; gero, hankekin kolpatzen saiatzen da, baina ez dauka angelu nahikorik indar egiteko.

Handik minutu batera berriro ukitzen du poltsikoa, telefonoa hor dagoen konprobatzeko. Eta ez, ez da hala.

Musika

“Zoragarria”, Xabier Montoia, *Ni ez nai* Xabier Montoia,
Metak 2002.

“Koloretan”, Perlak, *Perlak*, Egilea editore 2014.

“The Greatest”, Cat Power, *The Greatest*, Matador 2006.

§§§§§§§§

Testua

Iban Zaldúa, *Ipuina engainua da*, Elkar 2022.